



# 2030 Agenda zer da?

**Bost** minutu  
17 + VII diapositiba ikusteko

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country



## 2030 Agendak gizateriarentzat eta planetarentzat garrantzi kritikoa duten bost esfera definitzen ditu

- **Pertsonak.** Pobreziari amaiera ematea forma eta dimentsio guztietan, eta gizakiek beren potentziala duintasunez eta berdintasunez gara dezaten zaintzea.
- **Planeta.** Planeta degradazioaren aurka babestea, bere baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra bultzatzea eta klima-aldaketaren aurrean pre-miazko neurriak hartzea.
- **Oparotasuna.** Gizaki guztiek bizitza oparo eta betea izan dezaten eta aurrerapen ekonomiko, sozial, teknologiko eta ekologikoa izan dezaten zaintzea.
- **Bakea.** Beldurretik eta indarkeriatik libre dauden gizarte baketsuak, bizidetzakoak eta inklusiboak bultzatzea.
- **Aliantzak.** Garapen Iraunkorrerako Munduko Aliantza bat ezartzea, elkar-tasun handiagoan oinarritua eta pertsona ahulenen beharretan oinarritua.

*Euskadi, auzolana, bien común*



## 2030 Agendaren erabilgarritasun zehatza

Erakunde publikoen eta pribatuen eta gizarte-eragileen politikak lerrokatzen ditu mundu osoan, 17 helburu, 169 helmuga eta ebaluaketa-adierazleen bitartez:

- Desberdintasuna geldiarazteko, gizarteratzea eta aukera-berdintasuna sustatzeko eta pobreziarekin amaitzeko.
- Klima-aldaketa iraultzeko eta trantsizio ekologiko-energetikoa sustatzeko.
- Osasuna, hezkuntza edo aurrerapen digitala indartzeko eta sarbidea unibertsalizatzeko.
- Enpresa, lana eta enplegua duintasunaren, oparotasunaren eta iraunkortasunaren balio partekatuak egiteko.
- Mundu osoan bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideen errespetua sendotzeko.

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country

---

# Garapen Iraunkorreko **17 Helburuak,** banan-banan

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

**2030**   
Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country

1 POBREZIA  
DESAGERRARAZTEA



## •1. Helburua. Pobrezia desagerraraztea

Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.

*Elkartasunak egiten gaitu gizaki. Gauzarik bereziena eta unibertsalki gizatiarrena da. Helburu horrek justizia, enpatia eta inklusioa eskatzen ditu.*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country

2 GOSERIK  
EZ



## •2. Helburua. Goserik ez

Gosearekin amaitzea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

*Justiziarako eta gizateria beraren parte izateak zer esan nahi duen ulertzeko abiapuntu oinarrizkoena da.*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country



## •3. Helburua. Osasuna eta ongizatea

Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

*Pandemiak osasunaren esanahia balioesten irakatsi digu. Falta zaigunean, bere lehentasuna ulertzen da. Ondasun unibertsala izan behar du.*



## •4. Helburua. Kalitatezko hezkuntza

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

*Izaten, bizitzen, elkarrekin bizitzen eta lanerako trebatzen ikastea. Hezkuntzan beti dago hobetzeko tarteak. Aukera-berdintasunaren oinarria da.*





## •5. Helburua. Genero berdintasuna

Genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskatila guztiak ahalduntzea.

*Adierazpenen garaia amaitu da, ekintzetarako garaia da. Genero-berdintasuna atzeraezina da. Ez dago atzerapausorik, aurrerapausoak baizik.*



## 6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



### •6. Helburua. Ur garbia eta saneamendua

Pertsona guztientzako uraren eta saneamenduaren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasagarria bermatzea.

*Zaila egiten zaigu ur garbirik eta saneamendurik gabeko bizitza irudikatzea. Hala ere, gizateriaren zati handi batek ez du ondasun hori. Guri dagokigu.*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030



Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country



## •7. Helburua. Energia irisgarria eta ez kutsagarria

Pertsona guztiek energia eskuragarria, fidagarria, iraunkorra eta modernoa izateko aukera bermatzea.

*Energiarako sarbidea unibertsalizatzea premiazkoa da. Energia hori berriztagarria eta iraunkorra izatea da garrantzitsuena.*



## •8. Helburua. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

Hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu betea eta emankorra, eta lan duina sustatzea guztiontzat.

*Hazkundera ezin da ulertu justizia sozialaren zentzutik, lan-baldintzen duintasunetik eta eredu parte-hartzailerik sustapenetik aldentzen bada.*



## •9. Helburua. Industria, berrikuntza eta azpiegitura

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

*Jasangarritasuna berrikuntzaren irizpide gidaria da. Eta berrikuntza, industriaren eta azpiegituren sustapenaren baldintza da.*



## •10. Helburua. Desberdintasunak murriztea

Herrialdeen arteko herrialdeen barruko desberdintasunak murriztea.

*Zenbat eta pertsona gehiago hobeto bizi, orduan eta hobe izango da komunitate osoaren bizitza. Berdintasuna da gizateriak parteka dezakeen helbururik osasuntsuena eta bidezkoena.*



## •11. Helburua. Hiri eta komunitate jasangarriak

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezzen lortzea.

*Bizitza, elkarbizitza, ekologia, ekonomia, berdintasuna... gure kaleetan eta auzoetan agertzen dira. Hor jokatzeko da iraunkortasunaren eguneroko partida.*



## •12. Helburua. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

Kontsumo eta ekoizpen eredu iraunkorrak bermatzea.

*Erronka ez da gobernuena bakarrik. Lehen pertsonan eragiten digu. Kontsumoari buruzko gure eguneroko erabakiek jasangarritasunean eragiten dute.*






## •13. Helburua. Klimaren aldeko ekintza

Klima-aldaketari eta haren eraginei aurka egiteko premiazko neurriak hartzea.

*Gobernuen, herritarren eta mota guztietako erakundeen zeregina da. Guztiok har ditzakegu klima-aldaketa iraultzeko neurriak.*

# 14 ITSASPEKO BIZITZA



## •14. Helburua. Itsaspeko bizitza

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapena iraunkorra izan dadin.

*3.000 milioi pertsona baino gehiago biodibertsitate ozeanikoaren menpe daude. Etorkizun jasangarriak urpeko bizitzaren kudeaketa arduratsua behar du.*

*Euskadi, auzolana, bien común*

# 15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



## •15. Helburua. Lehorreko ekosistemetako bizitza

Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, lehengoratzea eta sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzeari aurre egitea, lurraren degradazioa gelditzea eta iraultzea, eta aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea.

*Kasu honetan, iraunkortasuna biodibertsitate hitzarekin bat dator. Ingurune naturalean daukaguna baloratzea, babestea eta sustatzea eskatzen du.*

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2030

Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country



## •16. Helburua. Bakea, justizia eta instituzio sendoak

Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

*Giza eskubideak, aniztasuna eta printzipio demokrati-koak bizikidetza bateratuaren oinarriak dira. Euskadin ondo dakigu hori.*





## •17. Helburua. Helburuak lortzeko aliantzak

Ezarpen-baliabideak indartzea, eta Garapen Iraunkorrerako Munduko Ituna biziberritzea.

*GIHak lan partekatu gisa hartuz gero lor daitezke. Paradigma-aldaketa dakar: kogobernantza, lankidetzeta eta baterako erabakia.*



---

## 17 helburuen zeharkako gakoak

- Eraldaketa soziala: berdintasuna, elkartasuna eta pobreziaren amaiera.
- Eraldaketa ekologikoa: jasangarritasun klimatikoa eta energetikoa.
- Eraldaketa ekonomikoa: oparotasuna eta bidezko giza garapena.

*Euskadi, auzolana, bien común*

# IV.

---

## Eusko Jaurlaritzaren planteamendua

*2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa* izeneko dokumentuan jasotzen da:

- **Diagnosia.** Covid inpaktuak eragin du 2030 Agenda lantzea premiazkoa goa izatea pandemiaren aurretik baino.
- **Xedea.** Garapen Iraunkorreko Helburuen ikuspegi eraldatzaileari lotutako *kontratu sozialaren kultura* bultzatzea.
- **Jarduera-plana.** Lau ardatz: hedatzea, koordinatzea, ebaluatzea eta lehenestea.
- **Panela.** 7 trakzio-konpromiso eta 7 proiektu adierazgarri. Eusko Jaurlaritzak GIHeekin duen erabakitasuna adierazten dute.

*Euskadi, auzolana, bien común*

# V.

---

## 2030 Agendaren lehentasunaren euskal programaren lau ardatzak

- **Hedatzea.** 2030 Agenda ezagunagoa izan dadin lortzea eta herritarren inplikazioa ahalbidetuko duten mekanismoak erraztea, Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozialaren bidez.

(Ikusi "7 MINUTU 2030 Agenda kontratu sozialari buruz gogoeta egiteko" dokumentua)

- **Koordinatzea.** Foro eleanitza eratzea, erakundeen eta gizarte-eragileen parte-hartzearekin, 2030 Agendaren baterako gobernantzarako.
- **Ebaluatzea.** Lehentasun berrietara egokitzea GIHak betetzeko euskal ekarpenaren lerrokatze- eta jarraipen-tresnak eta ebaluazio-adierazleak.
- **Lehenestea.** Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak ezartzea lau ardatzetan: pertsonak-ekitate, planeta-ekologia, oparotasuna-elkartasuna eta bakea-giza eskubideak.

(Ikusi "10 MINUTU laburpen exekutiboa, trakzio-konpromisoak eta euren proiektuak ezagutzeko" dokumentua)

*Euskadi, auzolana, bien común*



# VI.

---

## Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozialaren ideia

- **Auzolana.** Eusko Jaurlaritzaren programak elkarrizketa sustatu nahi du 2030 Agenda kontratu sozialaren eta ekipo-pentsamoldearen kultura bihurtzeak esan nahi duenari buruz.
- **Helburuak.** Gizarte-kohesio handiagoa lortzen laguntzea, bakearen, justiziaren eta iraunkortasunaren aldeko nazioarteko ahalegin onenen parte izatea, eta lehentasun eraldatzaileak bultzatzeko konpromisoa.
- **Interpelazioa.** 2030 Agendari buruzko Kontratu Sozial baten ideiak erakundeei eta era guztietako entitate eta enpresei eragiten die. Pertsona guzti-guztiei ere galdetzen digu: zer da niri dagokidana?

*Euskadi, auzolana, bien común*

# VII.

---

## Laburbilduz

- Mundua krisian dago.
- Premia bat dugu... eta aukera bat ere bai: 2030 Agenda.
- Nazio Batuen hitzarmen bat, mundu bidezkoagoa, iraunkorragoa, oparoagoa eta baketsuagoa lortzen laguntzeko.
- Premia eta aukera munduarentzat eta pertsonentzat.
- 2030 Agenda: Euskadiren konpromisoa.

*Euskadi, auzolana, bien común*

---

# Eskerrik asko!

Premia eta  
**aukera**  
munduarentzat eta pertsonentzat

**2030 Agenda**  
Euskadiren konpromisoa

*Euskadi, auzolana, bien comin*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Kontratu Soziala  
2030 Agenda  
Euskadi Basque Country